

2021EKO UDAL AURREKONTU-PROPOSAMENARI BURUZ GASTEIZKO GIZARTE-KONTSEILUAK EGINDAKO ARAUZKO TXOSTENA

SARRERA

Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen indarreko Araudi Organikoak 78. artikuluan jasotzen duenez, bestek beste, hauek izango dira Udaleko Gizarte Kontseiluaren zereginak:

“Urteko aurrekontu-proiektuari buruz arauzko txostena prestatzea”.

Abenduaren 9an, Gobernu Taldeak 2021. urterako udal aurrekontu-proiektua aurkeztu zuen Ogasun Batzordean, eta abenduaren 14an, Entzunaldi Publikoan.

Abenduaren 15etik urtarrilaren 7ra bitartean, hainbat eztabaida-bilera egin dira elkarguneetan, eta saio bateratu bat ere egin da auzogune guztien artean. Guztira, udal-teknikariak eta ordezkari politikoak kontuan hartu gabe, 63 erakundetako 127 pertsonak parte hartu dute (72 emakume, 54 gizon eta 1 ez binarioa) eta 12 pertsona bertaratu dira banaka.

Azpimarratu behar da hiriko neska-mutilei ere entzun zaiela prozesuan zehar, haurrek parte hartzeko Aktiba (TU) programaren bidez. Horrela, haurren iritzia txertatzearen aldeko apustu garbia egin da, haien iritzia ere funtsezkoak baitira guztiontzat nahi dugun hiria eraikitzeko.

Prozesua gauzatzeko oso denbora gutxi izan dela balioetsi dute, eta gainera, aurreko urtean are zailagoa izan da, abenduko jaiegun kopuru handiagatik eta COVID-19ak sortu duen egoeragatik.

Gizarte Kontseiluak, 2021eko urtarrilaren 11n egindako lan-saio batean, ondorengo arauzko txostena prestatzea erabaki du aurreko eztabaida-saio horietatik ateratako ondorioak eta proposamenak abiapuntutzat hartuta.

EGINDAKO AZTERKETA

Egin den prozesua ekainean eta uztailean egindakoaren jarraipena da, COVID-19aren pandemiak eragindako alarma-egoera amaitu ondoren. Bertan, herritarrek parte hartzeko udal-organoez zenbait proposamen eta gomendio egin zizkioten gobernu-taldeari, Gasteiz Berraktibatzekeo prozesuaren baitan.

Horrela, proposamen horiek 2021. urterako aurrekontu-proiektuarekin alderatu dira, eta galdera honi erantzutekeo eskatu zaie elkarte eta pertsona parte-hartzaileei:

- Nola baloratuko zenuke 2021erako aurrekontu-proposamena, eta zer ekarpen egingo zenituzke?

Antolatutako topaketa bakoitzaren txostenak aztertu ondoren, hiru talde handitan antolatu dira egindako ekarpenak:

1. 2021eko udal-aurrekontuarekin zuzenean lotuta daudenak.
2. Udal-politikekara eta, batzuetan, udalaz gaindikoekara bideratu behar direnak. Horietako batzuk partida zehatzetan jaso beharko dira datozen urteetan.
3. Hirugarren multzo honek arauzko txostenaren lanketa-prozesuari berari egiten dizkio balorazioak eta ekarpenak.

2021EKO AURREKONTUARI BURUZKO PROPOSAMENAK

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA ELKARGUNEA

- Gizarte-polituketara bideratutako aurrekontu-igoerari dagokionez, bizikidetza eta aniztasuna sustatzeko politikak bultza daitezela proposatu da, diskurtso xenofoboak, arrazistak eta zurrumurrak ekiditeko.
- Garrantzitsua da Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuko proiektuen poltsa aurrekontuaren egituran islatzea, horiek betetzeko konpromiso-bermeekin.
- Ekarpen ekonomiko handiagoa egitea dirulaguntzen partidara, eta elkarte berrientzako partida zehatz bat sortzea.
- Hiri Hezitzailearen partida sustatzea.
- Oso positibotzat jotzen da GOIAN proiektuaren hitzarmena mantentzea.
- Partida zehatz bat sortzea udal-komunikazioa egokitzeko proiekturako.
- Negatiboki baloratu da dirulaguntzen deialdira bideratutako partidan izandako murrizketa, horrek erakunde txikienetan eta elkarte-ehunean eragin baitezake.
- Pandemian zehar, udal-zerbitzuen informazioa eskuratzeko aukerak hobetzea, batik bat langile atzeritarrentzat.
- Covid-19k eragindako ingurune eta seinale berriak dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat irisgarriak izatea.

GARAPENERAKO LANKIDETZA ELKARGUNEA

- Positibotzat jotzen da hitzarmenei eta deialdiei jarraipena eman izana.
- Funtsezko proposamen gisa, garapenean laguntzeko politika publikoak sendotzea eta Garapenerako Laguntza Ofiziala handitzea (% 1 inguru) planteatzen da. % 0,7an finkatzea eta % 1era iristeko ibilbide-orri bat egitea, eta hura aurrekontuan islatzea.
- Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzan (GEH) lan egitea, lanerako ildo estrategiko gisa. Horretarako, GEHaren deialdia indartu behar da, aurrekontu handiagoa bideratuz eta gizarte-ekonomia solidarioarekin lotutako ekintzak indartuz.
- Lankidetzako aurrekontua beste arlo batzuetara ez bideratzea. Horrela, partidaren bat gauzatzeko aukerarik ez badago, soberakinarekin arlo bereko beste aurrekontu-partida batzuk handitu beharko lirateke.
- Lankidetzan lan egiten duten pertsonen lan-eskubideak errespetatzen direla bermatzea. Eskubideak bermatzearekin lotuta, zeharkako kostuak handitzea (gaur egungo % 7tik) eta GEHaren deialdia indartzea eskatzen da, elkarteek hirian egiten duten lankidetzak-lana aitortzeko eta krisi hau sektorean sortzen ari den ondorioak leheneratzeko.

- ~~Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoak ondo funtziona dezala, hura beharrezkotzat jotzen diren baliabideekin hornituz.~~

KULTURA ELKARGUNEA

- Pandemian zehar, Sailak tokiko kulturari eta sorkuntzari laguntzeko egin duen ahalegina baloratu da.
- Aurrekontuan izan duen murrizketa handiarekiko kezka agertu da. Bestalde, kulturaren mundutik herritarrak babesteko eta suspertzeko sortu dituzten ekimenen garrantzia azpimarratu da, batik bat konfinamendu-garaian.

EUSKARA ELKARGUNEA

- Elkarreentako kideek, batetik, 2020an izandako jaitziera nabarmendu dute; eta bestetik, joera hori mantendu egin dela oraingo aurrekontuetan. Elkargunearen ustez, aurrekontu urria duen atal batean jaitziera aplikatzea oso kaltegarria dela eta udalak euskara babestu eta horren erabilera sustatu behar duela ohartarazi dute.
- Euskalgintzako kideen ustez, Euskara Zerbitzuari dagokion aurrekontua ez ezik, udalaren gainerako sailetan euskarari dagokion inbertsioa ere erakutsi behar zitzaion. Horrek agerian uzten du zeharlerrotasuna landu beharreko gaia dela Gasteizko Udalean. Udalak eredu izan behar du hizkuntz politikei dagokienez. Hizkuntzaren erabilera sistematizatu behar da eta udal esparru guztietara zabaldu. Aurrekontuez gain bestelako ekimenetan bermatu behar da euskararen erabilera: dirulaguntzetan, kontratuetan eta hitzarmenetan... etorkizunera begira dagoen aurrekontua behar da.
- 2020. urtean zehar atxikipekak zirenak murrizketa bihurtu egin dira. Euskarak hein handi batean pairatu ditu murrizketa hauek arlo guztietan, ez aurrekontuan bakarrik. Ezin ahaztu COVIDak eta konfinamenduak izandako eragina eta euskararengan izan duen eragin kaltegarria (udalaren hezkuntza eta aisialdi-programetan, euskaltegietan, eta abarretan...). Azken bileretan nabarmendu izan den bezala euskara bultzatzeko unea da, ez murriztekoa eta ausardia eskatzen da elkargunetik.

BERDINTASUNA ELKARGUNEA

- Kezka handia agertu da berdintasuneko aurrekontuan izandako “murrizketen” ondorioz, iaz baino % 40 txikiagoa baita. Adierazi dutenez, “berdintasuna kromo baten gisa ikusten da, ez gobernu-taldearen konpromiso baten gisa. Negoziazio politikoan, oposizioarekin mahai gainean jartzen den kromo bat da”. Aurreko urtearekin alderatuta egin

diren “murrizketen” ondorioz, “kolokan jarri da orain arte egindako lan guztia eta oraindik egiteko dagoena”.

- Berdintasun-politikak blindatzea.
- Udal-aurrekontu publiko guztiak generoaren ikuspegitik eta ikuspegi transfeministatik lantzea.
- Berdintasunerako dirulaguntzei lehentasuna ematea proposatzen da, emakume zaurgarrienei kalitatezko arreta ematen jarraitzeko eta, horrela, “inor atzean ez geratzeko”.

HAURRAK ETA NERABEAK ELKARGUNEA

- Ama ezkongabeentzako laguntza eta babesa.
- Indarkeria matxistaren prebentziorako programak.
- Bullying-aren prebentzio-programak.
- Jolaserako gune itxiak, aisialdi sortzaile eta osasuntsuagoa izateko: bideo-jokoak, mahai-jokoak.
- Nerabeentzako gune itxiak (10-18 urte).
- Parkeak eta Skate & Parkour-ak nerabeentzat.
- Zabalganako BMX zirkuitua handitzea.
- Skatepark bat Txagorritxun.
- Bidegorriak areagotzea.
- Patioak zaintzea eta eraberritzea: zabu eta jolasleku gehiago, Covid garaira egokituak.

GAZTERIA ELKARGUNEA

- Nabarmendu denez, duela gutxi Erronka Gazteak Gazte Plana onartu da, herritarren, teknikarien eta politikarien artean egindako prozesu parte-hartzaile baten emaitza gisa. Plan horrek aurrekontu-partida bat du, eta ekonomia suspertzeko prozesuan egindako ekarpenak jasotzen ditu, esku-hartze eremuaren arabera.
- Negatiboki baloratu da dirulaguntzen partidan izan den murrizketa; izan ere, jarduera murrizteaz gain, elkarteek pandemiak eragindako errealitate berrira berregokitu eta berrasmatu behar izan dute.
- Interesa agertu duten elkarteei Gazte Informatzaileen Sarearen deialdia zabaltzea eta, hala badagokio, aurrekontua handitzea.
- Egoera berrira egokitu beharra. Digitalizaziorako partida ekonomikoak izatea.
- Asexoria sexualitatearen aholkularitza indartzea eta aurrekontu handiagoa hornitzea, beste LGTBI eta ihesaren aurkako elkarte batzuekin batera.

INGURUMENA ELKARGUNEA

- Eraztun berdea behin betiko jostea oraindik loturarik ez dagoen lekuetan.
- Birziklatzeko edukiontzien kontzientziazio- eta erabilera-kanpaina gehiago egitea proposatzen da, baita edukiontzien antolaera eta ezaugarriak hobetu daitezela ere.
- Bide publikoan obra edo inbertsio jakin batzuk egiteko kentzen edo mozten diren zuhaitzei buruzko datuak eta landatzen edo beste eremu batzuetara eramaten direnei buruzko datuak argitaratzea eta ematea.

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ALDEKO FOROA ELKARGUNEA

- Bidegorrien kantitatea, kalitatea eta lotura handitzeko inbertsioak sustatzea.
- Lantokira joateko bidegorri-sare bat sortzea, hala nola Jundizeko industrialdera.
- Garraio publikoan egindako inbertsioak autobus elektrikora gehiago bideratzea proposatzen da, autobus elektriko adimentsura (BEI) eta autobus-sarea elektriko egitera, eta ez horrenbeste tranbiara, azken honen azpiegiturak kostu handia eskatzen duelako.
- Bizikleta eta patineteen aparkalekuetan inbertsio gehiago egin daitezela proposatzen da.
- Auzoetako zuhaitzien planera bideratutako aurrekontua handitzea.
- “Mugikortasunik eza” sustatzeko partidak aurreikus daitezela proposatzen da, hala nola telelana edo gertuko zerbitzuak sortzea, joan-etorrien beharrak murrizteko.
- Super-etxadiei dagokienez, pertsona batzuen ustez oso garrantzitsua da lehenbailehen garatzea, eta beste batzuek berriz, super-etxadien eredu horren inguruan berriz hausnartzea proposatzen dute, zaratak eta kutsadura beste eremu batzuetara eramaten direlako, eta beraz, haien baliozkotasuna zalantzan jartzen dutelako mugikortasunari dagokionez.

Jarraian, Gizarte Kontseiluak Mugikortasun Jasangarriko elkargunea egin ondoren jasotako ekarpenak, Gizarte Kontseiluak atal honetan sartzea erabaki baitu.

- *Oro har, bizikleta-azpiegiturarako aurrekontua gutxienez 2.500.000 €-ra igotzea (egitura hori baliagarria izango da VMPrako ere). Izan ere, bizikletaren erabilera sustatzeko aurrekontua urtean 10 €-ra igotzea gomendatzen da (pertsona bakoitzeko), eta Gasteizen ez da 1 €-ra iristen.*
- *Bizikletek espaloietan ibiltzeari utzi eta galtzadan modu seguruan ibili ahal izateko ekimenak:*

- *Bizikletaren Bulegoa, Bizikleta Mugikortasunaren Gida Planak (2010-2015) jasotzen duen bezala.*
- *Kaleetan 20ko eta 30eko seinaleak jartzea; edo hiri osoan 30eko abiadura ezarri eta salbuespenak seinaleztatzea.*
- *50eko abiadurako galtzadetan, bi noranzkoko bidegorriak ezartzea, errepidearen bi aldeetan.*
- *Bizikleten pasabide guztietan seinale bertikalak jartzea.*
- *Bizikleta-erabiltzaileen eta oinezkoen artean gatazkak murrizteko helburuarekin:*
 - *Bizikletentzako espaloien ordeztzea, bidegorriak edo bizikletentzako pistak jartzea edo trafikoa baretzea, galtzaren ezaugarrien arabera.*
 - *Bidegurutze arriskutsuak kentzea, txirrindularien eta oinezkoen segurtasuna lehenesten duten neurriak ezarriz (eta ez trafikoaren arintasuna).*
 - *Bidegorrien argiztapena hobetzea.*
 - *Bizikletek ibili behar duten galtzaden mantentze-egoera hobetzea.*
 - *Bidegorri-sarea ikastetxeekin, industrialdeekin edo lantoki handiekin lotzea.*
- *Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko jarduerak:*
 - *Ziklologistika sustatzea eta babestea.*
 - *Bizikleta elektrikoak eta kargatzeko bizikletak udal-langileentzat.*
 - *Vitoria-Gasteiz “Red de Ciudades por la bicicleta” sarean sartzea.*

ADINEKOAK ELKARGUNEA

- Partidak mantentzeko ahalegina baloratu da, edo, zinegotziak adierazi duen moduan, “adinekoen programak etengabe hobetzearekin” lotuta daudenak.
- Hitzarmenak areagotzea, gainerako aurrekontu-partidak handitzen diren neurri berean.
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren prestakuntzan eragitea, pertsona ardatz duen arreta-eredua gailenduz eta berariazko partida ekonomiko bat aurreikusiz.
- San Prudentzio erlijio-zerbitzua Apezpikutzak ordaindu beharko luke.
- Berpizkundearen plazako Eguneko Zentroa ireki behar bada, beharrezko partida bidera dadila, hau da, obrak bakarrik kontuan har ez daitezela.
- Zenbateko berriak proposatu dira honako partida hauetarako:
 - Familia Zaintzaileei Laguntzeko Programa: 150.000 €
 - Hirugarren adinekoen egoitzetako animazioa: 350.000 €

- ~~Zentro soziokulturalaren kudeaketa: 3.500.000 €~~
- Adinekoentzako apartamentuetako familia-langileak: 800.000 €
- Beato eguneko arreta-zerbitzuaren kudeaketa: 600.000 €
- Berpizkundearen plazako eguneko arreta-zerbitzuaren kudeaketa: 146.000 €

- Etxeko Laguntza Zerbitzua: 16.000.000 €
- Hirugarren adineko pertsoneri harrera egiteko boluntarioen elkarte: 15.000 €
- AFARABA hitzarmena: 5.000 €
- Adinekoei laguntzeko boluntariotza-programa: 36.000 €
- ASCUDEAN hitzarmena: 100.000 €
- Adineko pertsonaren gertuko irudi profesional bat ezartzea etxean, haren premiei erantzuteko (emozionalki, konpainia egiteko, kudeaketak egiteko...).
- Bakardadeari dagokionez, zer egin behar den zehaztu dadila.
- Komun publikoetarako aurrekontua, mantentze-lanak barne.

ANIMALIEN BABESERAKO ELKARGUNEA

- Hiriko katuen koloniak kudeatzeko Gadenen hitzarmenera bideratutako partidaren murrizketa atzerapauso bat da animalien babesari dagokionez.
- Hiriko hainbat puntutan usategiak sortzea (usoen populazioa kontrolatzeko) eta horien mantentze-lanak boluntarioek egin ahal izatea.
- Apasosen hitzarmenerako partida handitzea, elkarte gastu gehiago izaten ari baita jabeek elkarera eramaten dituzten eta Animaliak Babesteko Zentroak (ABZ) dagoeneko hartzen ez dituen animaliak hartzeagatik. Partida 25.000 eurora igotzea eskatu dute.
- Mikrotxipak jartzeko kanpainak egitea.
- Gastuetara bideratutako partida espezifiko bat gehitzea, animaliek txeniletan beroa izan dezaten ABZ eraberritzeko lanak egiten ez diren bitartean.

OSASUNA ETA KONTSUMOA ELKARGUNEA

- Elkarte soziosanitarioen dirulaguntzetarako aurrekontua mantendu izanaren garrantzia azpimarratu da.
- Hiriko komun publikoei dagokienez, honako hauek proposatu dira: komun gehiago jartzea, Floridan eta Espainiako Bankuan lehendik daudenen irisgarritasuna hobetzea (oztopo arkitektonikoak) eta berariazko kanpaina bat egitea, herritarrei jakinarazteko merkataritza-jardueren komunak pertsona guztiek erabil ditzaketela, bezero izan beharrik gabe. Era berean, seinaleak hobetzea proposatzen da, komun publikoak non dauden jakinarazteko.

- Osasun Planean, kontuan izan behar da osasun-arloko desberdintasunak daudela generoari dagokionez. Horrenbestez, gerru-ihesari eta osteoporosiari aurrea hartzeko ekintzak sustatzeko kanpainak proposatzen dira. Azken hori 25 urte arteko gazteei xedatua dago.

AUZOGUNEAK

- Auzo-elkarteentzako dirulaguntzen partida handitzea, auzo-elkarteen kopurua handitu egin dela kontuan hartuta. Gainera, auzo-kolektiboek egiten dituzten jarduerak gizarte-dinamizazioan eta gizarte-kohesioan eragiten duten inbertsioa izan behar da kontuan.
- Hurrengo urteetan, jarraipena izango duen berriazko partida bat bideratzea hezkuntzaren gizarte-berrikuntzarako. Horrela, 2021ean, Zaramaga auzoko Odon de Apraiz ikastolako jolastokia birmoldatu ahal izango da (auzoari eta komunitateari irekia), proiektu pilotu gisa. Genero-ikuspegia barne hartzen duen proiektu hori ikastolako haurrekin egindako parte-hartze prozesu baten emaitza izan da, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso du. Egitea bakarrik falta da. Hurrengo urteetan, ildo berean lan egiten ari diren beste ikastetxe publiko batzuetan ere egin liteke.
- “Super-etxadien” proiektua garatzeko eta gauzatzeko orduan herritarren parte-hartzea gehitzea, bereziki ikastetxeen eta auzo-elkarteen parte-hartzea, erabaki hobeak har daitezten eta herritarren aldetik konpromiso handiagoa egon dadin.
- EIBak Mendizorrotza eta Batan auzoetan izan dezakeen eragina berrikustea, oinezkoentzako lekua murriztuko baita lehendik ere autoen eta bizikleten zirkulazioa oso handia den eta oinezkoentzat leku gutxi dagoen eremu horretan.
- Espazio publikoko inbertsioen partidan, San Martin parkeko haur-jokoan birmoldaketa kontuan izatea.
- Udalari eskatu zaio Eusko Jaurlaritzaren udalentsako “Udal Laguntza 2021” laguntzetara jo dezala jolastoki estalirik ez duten ikastetxeetan karpak instalatzeko; izan ere, laguntza horiek kostuaren % 90 estaliko lukete. Gutxienez lau ikastetxek agertu dute interesa.
- Tranbiaren eta BElaren lanek, lauza gehiegi dituzten birmoldaketa-lan berriek eta duela gutxiko elurteak eragindako zuhaitzen mozketak eta suntsiketak arintzeko, hirigunean (ez periferian, ezta eraztun berdean ere) ale berriak landatzeko aurrekontu-partida handitzea proposatu da.

UDALEKO ETA UDALAZ GAINDIKO POLITIKETARA BIDERATUTAKO AURREKONTUAK

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA ELKARGUNEA

- Positiboki baloratu da Kulturarteko Komunitateko Esku-hartze Proiektua, jarraitu beharreko eredu gisa.
- Etxebizitzak alokatzea. Arazo horri aurre egiteko formulak bilatzea proposatzen da.
- Ekintzailtza: ekintzailtzairen inguruan erreferente gazteak eta anitzak izatearen garrantzia nabarmendu da. Gezurrak eta estereotipoak haustea.
- Topagune inklusiboak sortzea. Aisialdi inklusiboa.
- Polizia-kidegoei prestakuntza ematea, herritarrekiko komunikazioa hobetu dezaten eta herritarrei arreta eskaintzeko eredu berri bat txerta dezaten.
- Oztopo idiomatikoan eragitea. Oso arrakala handia dago. Gaztelaniako eskolak funtsezkoak dira bizikidetzarako.
- Komunikazioan une oro eskuragarritasuna izatea: baliabideetara eta informaziora sarbidea erraztea. Irakurketa erraza eta eskuragarria udaletxe osoan. Eten digitala murriztearen garrantzia azpimarratu dute.
- Etorkinei Udalaren jardueretan parte hartzeko aukera erraztea.
- Udaleko sailen artean koordinazioa eskatu dute, elkarteei eskura dauden baliabideen berri emateko.
- Jatorri atzeritarreko familiek euskarara hurbiltzeko interesa dutela jakinarazi da. Horregatik, euskara ikasteko programak indartzea proposatzen da (lagunduta parte hartuko lukete).

GARAPENEAN LAGUNTZEKO ELKARGUNEA

- Lankidetzak-partidak partida ekonomikoekin hornitu beharra aipatu da, baina ez hori bakarrik, baita lankidetzak-politikak kalitatezko politikak izan behar dutela ere.
- Euskal administrazio publikoek garapenean laguntzeko bideratzen duten ehunekoa kalkulatzeko formulak bateratu beharra aipatu da. Gai hau Batzorde Teknikora eraman dadila eskatu da, dagozkion erabakiak har daitezten.
- Politiken koherentzia: Gasteizko Udalaren politika guztiek garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa dutela bermatzea. Arlo guztietako politikak GIHeekin eta 2030 Agendarekin bat datozela berrikustez gain, Udalak bere kontratazioetan zer egiten duen berrikusi eta erosketa publiko arduratsua bermatu beharko litzateke.

- ~~Lankidetzari eta deialdiei buruzko araudiak bizkorrak eta malguak izan daitezela, testuingurura egokitzeko.~~

KULTURA ELKARGUNEA

- Tokiko sorkuntza babestea eskatu da, bereziki euskaraz sortzen dena. Laguntzea ez da baliabide ekonomikoak ematea bakarrik. Mota honetako ekimenak ere egin daitezke: espazioak kudeatzen, komunikatzen eta zabaltzen laguntzea. Eragindako agenteen artean irtenbide berritzaileak eta iraunkorrak bilatzeko beharra.
- Eskaintza kulturala deszentralizatzeko beharra. Zentzu horretan, parte-hartzea eta elkarlana sustatzea proposatzen dute kultura-eragileekin eta auzo-elkarteeekin batera, kultura-eskaintza anitza eta deszentralizatua lortze aldera.
- Ez dago apustu berritzailearik batik bat gazteak eta publiko berriak kulturara erakartzeko. Proiektu pilotuak abiarazteko beharra.

EUSKARA ELKARGUNEA

- Kontseiluari, elkarguneetako ordezkari eta arduradunei: elkarguneetan euskara bultzatzea. Elkarguneen hasieran animatu behar zaio euskaraz egin dezakeenari euskaraz egitera. Askotan, nahiz eta euskaraz jakin “ausardia” izan behar da euskaraz aritzeko, nahiz eta ondo moldatu. Kontseiluak eta Elkarguneetako ordezkariak sustatu eta erraztu egin behar dute euskaraz aritzeko aukera.
- Euskaraz egiten den edozein jarduera ez zaio Euskara Zerbitzuaren aurrekontuari egotzi behar. Ondo bereizi behar da Euskara Zerbitzuaren aurrekontua, Euskararen Etxeari dagokiona eta udalak gainerako jardunetarako duena.
- Bestalde, 2020. urteko hasierako zenbakietara itzultzea bermatu beharra dago, hau da, lehengo zenbakiak mantendu behar dira, eta besteak beste jarduera hauek bermatu behar dira: gurasoen euskalduntzea, Euskaraldia (bi urteko prozesua baita), euskararen agenda, euskararen astea...
- Garrantzitsua da gogora ekartzea eta udalak ezin du ahaztu 3. sektoreko elkarteei ematen zaiena gizartean bertan geratzen dela, eta herritarrei itzultzen zaiela.

BERDINTASUNA ELKARGUNEA

- Berdintasun-politikak oro har jorratu beharra aipatu da, eta ez partida puntualekin “petatxuak” jartzea.

- Erakundeek LGTBifobiaren eta indarkeria matxistaren aurka borroka egiteko borondatea agertu eta adierazi dute. Eta beraz,

gizarte tolerante, berdinzale eta seguruagoa eskatzen dute, gorrotoaren diskurtso matxistarik gabea.

HAURRAK ETA NERABEAK ELKARGUNEA

- Berdintasuna:
 - Matxismoa eta indarkeria matxista agerian jartzea: kanpainak, manifestazioak, horma-irudiak, antzerkia, tailerrak, konferentziak, bideoak. “*Emakumeak ez dira panpinak*”.
- Bizikidetza eta Aniztasuna:
 - Arrazismoaren aurkako kanpainak edo programak: marrazki-lehiaketa, hainbat herrialdetako herri-jokoen txapelketak, herri-martxak, arrazismoaren aurkako eskuliburuak.
 - Etxerik ez duten pertsonentzako laguntza eta babesa.
- Espazio publikoaren erabilera:
 - Jolaserako gune itxiak, aisialdi sortzaile eta osasuntsuagoa izateko.
 - Nerabeentzako espazio itxiak (10-18 urte). Nerabeentzat jarduera gutxi daude, eta ez dute udal-gunerik.
 - Parkeak eta Skate & Parkour-ak nerabeentzat (espezifikoak daude adinekoentzat eta txikiagoentzat, baina ez gazteentzat): Zabalganako BMX zirkuitua handitzea, Skatepark bat Txagorritxun, zabuak mugikortasun urriko pertsonentzat, bizikletak aparkatzeko leku gehiago, scooter-ak 12 urtetik gorakoentzat, agerleku txikiak parkeetan, tirolina gehiago eta ohe elastikoak. Beharbada estali egin beharko lirateke, eguraldi txarra egiten duenerako.
- ingurumena:
 - Birziklatze-kanpainak: plastikozko tapoiak botatzeko edukiontzia, edukiontzi gehiago, paperontzi gehiago, dendetan plastikozko poltsak kentzea, edukiontzien diseinu

~~praktikoago eta erakargarriagoak, eta birziklatzearen aldeko norma-irudiak hirian.~~

- Eguzki-energia erabiltzea.
- Mugikortasuna:
 - Bidegorriak areagotzea.
 - Patineteentzako araudi bat sortzea.
 - Semaforoak hobeto antolatzea.
- Kultura eta zentro zibikoak:
 - Jarduera gehiago: tailerrak, antzerkia, youtuber-ak eta influencer-ak, eta abar. Jarduera gehiago kalean, eta ez erdigunean bakarrik, baita auzoetan ere.
 - Liburutegiak eta zentro zibikoak irekitzeko ordutegia zabaltzea.
- Hezkuntza:
 - Patioak zaintzea eta eraberritzea: zabu eta jolasleku gehiago, Covid garaira egokituak.
 - Bullying-aren aurkako prebentzio-kanpainak. Harrera eta laguntza psikologikorako zentroa.
 - Hezitzaile gehiago eta horientzako eta ikastetxeentzako baliabide gehiago, gure arazoak konpontzeko: irakasleei soldata handiagoa, irteerak egiteko...
- Partaidetza:
 - Ikastetxeetan politikariek topaketak antolatzea.
 - Hurrek parte hartzeko klub bat antolatzea.

“Hurtzaroon inbertitutako diru guztia etorkizunean inbertitutako dirua da, hurrengo belaunaldientzat. Beharrezkoak ez diren gauzetan dirurik ez gastatzea. Hurtzaroon inbertitzea ez da gure bizitza hobetzea bakarrik, etorkizuneko belaunaldiena hobetzea baizik”.

GAZTERIA ELKARGUNEA

- ~~Gehiago hedatu behar da, gazteengana hurbiltzeko eta horiek udal-programak ezagutzeko. Bitartekoak eta baliabideak egokitzea. Publizitate-marketinean eta beste bitarteko batzuetan inbertitzea (Instagramen, besteak beste).~~
- Gazteek parte hartzeko eta gazteei arreta eskaintzeko espazioak oso serioak dira. Gazteak motibatuzko ekimenak falta dira, gertuko eta konfiantzazko sentimendua adieraziz.
- Gazteak kolektibo heterogeneotzat hartzea. "Gazteria asko daude". Arreta eta jarduketak

errealitate eta aniztasun guztietara egokitzea, guztiengana iristeko, bereziki gazte zaurgarrienengana.

- Garrantzitsua da elkartasunaren gisako balioak sustatzea, eta horregatik, oso garrantzitsua da gazteen artean boluntariorza-kanpainak egitea.
- Gazteek sustatzen eta egiten dituzten ekimen positiboak ikusarazten eta balioesten dituzten ekintzak behar dira. Gazteen irudi negatiboa erakutsi ohi da.
- Gaztetasuna zeharka jorratzea: laneko prekarietatea, emantzipazioa, behin-behinekotasuna eta abar.

INGURUMENA ELKARGUNEA

- Ibilgailuen errodadurak sortutako zarata murrizteko eta kutxatila-zigiluak hobetzeko neurriak gai honekin lotutako puntu beltz batzuetan.
- Udal-eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea eta Udalaren aldetik energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Hiriko espazio publikoan egiten diren obrek sortzen duten hots- eta ingurumen-kutsadura gehiago zaintzea eta kontrolatzea.

MUGIKORTASUNAREN FOROA ELKARGUNEA

Aurrekonturik behar ez duten ekintza hauek proposatzen dira:

- Galtzada partekatzea bezalako neurriak sustatzea bizikleta azpiegitura gehiago egitearen aurretik. Azken hauek reagiten dituzten arrisku eta arazoekin (bidegurutzeak, kostua, moteltasuna, estutasuna...)
- Patinete elektrikoei buruzko araudi mesedegarri eta zertxobait murriztailea.
- Baimendutako bideetan bizikletak parekatzea
- Trafikoa baretzea poliziaren kontrol gehiago ezarriz. Arau-hausteei dagokienez, baina baita bizikleten eta patineteen kasuan ere, espaloietatik ibiltzen direnean.
- Ordaineko aparkalekuen prezioa igotzea.
- Bizikletetarako eta patinete elektrikoentzako bideak uzteko seinaleak ezartzea, bidegurutzeak ez diren oinezkoentzako semaforoetan.

- Lurperatze-proiektua berrikustea eta birplanteatzea proposatzen da, haren trazadura AHTaren erronkei eta garraiorako trenbide-autobidearen erronkei aurre egiteko gai izan dadin, eta hori guztia XXI. mendeko mugikortasun- eta hiri-kanonekin bat etorritz.

ADINEKOAK ELKARGUNEA

- Familiei gehiago laguntzea proposatzen da, adinekoak osasun mentaleko arazo bat edo narriadura kognitibo bat duenean.
- Udalaren konpromisoa pertsoneri arreta eskaintzea bada, horrek lehentasuna izan behar du beti azpiegitura- edo inbertsio-proiektuen aurrean.
- Adineko pertsonentzako zerbitzuak Udalak bereganatzeko aukera proposatu da, gaur egun kontratu edo hitzarmen bidez egiten direnak.
- Adinekoentzat baliabideak erabiltzeko aukera erraztea proposatzen da.

ANIMALIEN BABESERAKO ELKARGUNEA

- Hiri-kolonien kudeaketari buruzko datu orokorrak argitaratzea. Hirian zenbat katu basati eta kolonia dauden jakitea.
- Usategiak kudeatzeko, boluntarioek parte hartzeko sistema bat sortzea.
- Usoen elikadurari buruzko herritarrentzako hezkuntza-programak garatzea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak legez kanpo ez hazteko ekintzak egitea.
- Uso-populazioaren errolda-azterketaren datuak argitaratzea.
- Elkargunearen bidez, hiriko katu-kolonien eta usoen populazio-erroldaren kudeaketan egindako azterlanak eta lortutako datuak partekatzea.

OSASUNA ETA KONTSUMOA ELKARGUNEA

- Zarata faktore erabakigarria da pertsonen osasunean, eta beraz, proiekturen bat egitea proposatzen da, Ingurumen Sailarekin eta Kirol eta Osasun Sailarekin koordinatuta.

AUZOGUNEAK

- Udal-gobernuak “super-etxadien politika” defendatzen du pertsonak ardatz dituen espazio publikoaren erabilera berriari lehentasuna emateko politika gisa (ibilgailuaren erabileraren aurrean). *“Hirian super-etxadiak sustatzeko planak pertsonak elkartzeko gune gehiago sortzea*

~~ahalbidetzen du, espazio komunez gozatu ahal izateko~~”. Udal-politika hori bada, koherentzia politikoa eskatzen da, eta beraz, hiria bera eta pertsona guztiak neurri horien eta bizi-kalitate hobearen onuradun izan daitezela. Iturritxuren kasua aipatu da. Bertan, auzotarrak ez daude ados Udalaren jarduketarekin, dirudienez, automobilak, abiadura, arriskua eta segurtasunik eza lehenesten baititu, eta ez auzoan bizi direnen bizi-kalitatea.

- Elkarte batetik, gizarte-zerbitzu eskuragarriagoak eta hurbilagokoak izateko premia aipatu dute. Elkarteari laguntza “eskatzeko” zioten pertsona zaurgarrien egoerak aipatu dituzte, gizarte-zerbitzuetara nola jo ez zekitenak.
- Tranbiaren eta BEIaren lanek, lauza gehiegi dituzten birmoldaketa-lan berriek eta duela gutxiko elurteak eragindako zuhaitzen mozketa eta suntsiketa arintzeko, hirigunean (ez periferian, ezta eraztun berdean ere) ale berriak landatzeko aurrekontu-partida handitzea proposatu da.
- Udalak Adurtza inguruan dituen eta hutsik dauden lonjak bizikletak aparkatzeko erabil daitezela planteatzen da. Horretarako, erakundeak espazio hori egokitu eta alokairu txiki bat ordainduko luke nahi duten pertsonak erabiltzeko.

ARAUZKO TXOSTENA EGITEKO PROZESUARI BURUZKO PROPOSAMENAK

- Aurrekontu-partidetan informazioa gehiago banakatu behar da “Gasteiz Berraktibatu” eztabaidan egindako proposamenak identifikatu ahal izateko.
- Datuak errazago ulertzeko, aurreko ekitaldiko aurrekontua aurkeztea proposatzen da, konparazio bat egin ahal izateko.
- Elkarguneetako saio batzuk finkatu diren datak desegokitzat jotzen dira.
- Oro har, adierazi da saiorako emandako dokumentua ez dela argia edo erraza hura jorratu behar duten pertsonak ulertu ahal izateko.
- Aurrekontu-informazioan agertzen diren partida orokorrak eta konpromezu kredituak hobeto azaldu beharko lirateke entzunaldi publiko eta auzogune zein elkarguneetan, horiek barne hartzen dituzten kontzeptuei eta kudeatzeko moduari dagokienez.
- Ahalegin handiagoa egin behar da herritarrengana modu argian eta irisgarrian iristeko, saio horietan jende gehiagok parte har dezan.
- Beste erakunde publiko batzuek udal inbertsioei egindako ekarpenen berri ematea.
- Aurrekontu-sailkapenari buruzko informazio argia ematea. Atalen sailkapena, zeintzuk diren eta zertarako erabiltzen den bakoitza.

Ondorio gisa, pandemiak sortutako krisi sozial eta ekonomiko honetan, eta irauten duen bitartean, Gizarte Kontseilu honek gobernu-taldeari eskatu nahi dio inbertsio edo azpiegitura handien aurrean (hots, Mendizorrotzako futbol-zelaia, auditorio berria, trena lurperatzea, tranbia) pertsonak lehentasunen erdigunean jar ditzala, Gasteiz berraktibatzeke egin genuen txostenean argi adierazi genuen bezala.

Espero dugu gobernu taldeak eta udaleko gainerako talde politikoek kontuan hartzea planteatutako proposamenak eta zuzenketa gisa bideratu ditzaten egoki jotzen dituztenak; eta, aurrekoetan bezala, gobernu taldeari eskatzen diogu erantzun arrazoitua eman diezaiola Gizarte Kontseiluaren txosten honi.

Azkenik, Gizarte Kontseiluak eskerrak eman dizkie, beren balioespen eta proposamenen bidez, txosten hau egiten lagundu duten pertsonari. Eta Vitoria-Gasteizko herritarrak animatu egin nahi ditugu gure udalaren diru-sarrera eta aurrekontuen inguruan etorkizunean egiten diren eztabaidetan aktiboki parte hartzera, denon artean eraiki nahi dugun hiri-eredua definitzeko balio izango dutelakoan.

GIZARTE KONTSEILUA